

UPV/EHUko ZUZENBIDE FAKULTATEAREN JUSTIZIA SOZIALAREN ALDEKO KLINIKA JURIDIKOAREN 2018ko URTEKO TXOSTENA (AKADEMIKOA ETA EKONOMIKOA)

TXOSTENAREN JATORRIA

Zuzenbide Fakultatearen Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoa (JSKJ, aurrerantzean) sortu zen UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2016ko ekainaren 2an hartutako akordio bidez, nortasun juridikorik gabeko entitate gisa (EHAA, 2016ko ekainaren 22a). Hori dela eta, UPV/EHUk sortutako eta nortasun juridikorik gabeko egitura eta erakundeen Oinarrizko Arautegiak zuzentzen du JSKJ, eta arautegi hori UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak onartu zuen, 2012ko maiatzaren 16ko akordio bidez (EHAA, 2012ko ekainaren 18a).

Arautegi horren 5.4 artikulua haxe dio: "*Kasuan kasuko egitura edo erakundearen gobernu organoek jardueren plana eta oroitidazkia osatu beharko dituzte urteko, hala balegokio, ekonomi txostena bertan dela, arloko eskumena duen errektore taldeko kideari igorriko zaiona, bai eta, beharko balitz, jardunari dagokion campuseko errektoreordetzari ere. Dokumentuon elaborazioa eta igorpena zuzendaritza edo koordinazioa bere gain hartuko dituenaren eginkizuna izango da*". Beraz, aipatutako arautegiaren arabera, JSKJko zuzendari gisa (UPV/EHUko errektorearen 2016ko ekainaren 29ko Erabakiaren bidez izendatua), niri dagokit entitatearen urteko txostena egin eta errektoreordetza eskudunari igortzea (2016 eta 2017ko txostenekin egin genuen bezala); hots, gaur-gaurkoz, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordeari.

Halere, JSKJak funtzionamendurako arautegi propioa ere badu. Haren 8. artikuluan, zuzendariaren eskumen eta eginkizun gisa ageri da JSKJren urteko txostena eta txosten ekonomikoa egitea; bestalde, 13. artikulua ezartzen duenez, Zuzendaritza Kontseiluaren eskumena izango da horiek onartzea. Hortaz, aipatutako arautegiek ezarritakoarekin bat etorrita, JSKJko Zuzendaritza Kontseiluak txostenak onartzeko egindako bilerako akta eransten zaie urteko txostenari eta txosten ekonomikoari.

TXOSTEN AKADEMIKOA

JSKJak **2018. urteko** jardun ildoak bost jarduera multzotan taldekatu daitezke: 1) Graduako praktikak eta GRAL/MAL; 2) Mintegi iraunkorra; 3) "Justizia Soziala-Lab" hezkuntza berrikuntzako proiektua; 4) Etorbizuna Eraikiz proiektua; eta 5) Gizarte proiektzioa eta elkarteekiko lankidetzaren indartzea, aipagarria izanik haren administrazio kudeaketan JSKJri atxikitako AZPko langilearen lana (Beatriz Lucas).

I. GRADUAKO PRAKTIKEI ETA GRAL eta MAL LANEI LOTUTAKO JARDUERAK

1. JSKJak "Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoaren bidez GRAL/MAL egiteko orientabideak" zirriborroa egitea, "UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatearen Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoaren esparruan GRALa eta MALa egiteko ildoak" dokumentutik abiatuta. Zirriborro hori kontsulta prozesuan dago, Klinikako Zuzendaritza Kontseiluko kideek proposa ditzaketen hobekuntzen zain. Zuzendaritza Kontseiluko kideen ekarpenen ondoren, ikasleei helaraziko zaie, hobekuntza proposamenak egin ditzaten. Hobekuntza guztiak sartu eta gero, behin Kontseiluaren oniritzia jasota, dokumentua gida gisa erabiliko dute ikasleek eta irakasleek, GRALak eta MALak egin edo zuzentzeko orduan, ibilbide klinikoari jarraituz.

2. Helene Colomo eta Oihane Vergara ikasleen (Zuzenbideko graduakoa eta Kriminologia graduakoa, hurrenez hurren) nahitaezko praktiken tramitazioa eta jarraipena, ibilbide klinikoaren arabera, baita Verónica Gallo Pérez ikaslearen borondatezko praktikena ere. Gainera, Oihane Vergara eta Verónica Gallo ikasleek beren praktiken prestakuntza aldia bete dute *trantsizio bekak* formatu bidez. Praktika horiek guztiak egiteko, beharrezkoa izan da prestakuntza proiektuaren diseinu pertsonalizatua, dagozkion Praktika Hitzarmenen sinadurarekin batera. 2018-19 ikasturteari begira, Ane García Irizar eta Miren Unsuain zuzenbideko ikasleen curriculum praktiken adjudikazio prozesua burutu da, SOS Arrazakeriarekin elkarlanean.

3. Zuzenbideko graduakoa GRAL hauen defentsa (ikasleen eskutik) eta balorazioa (Klinikako Zuzendaritza Kontseiluko irakasleen eskutik): "Violencia de Género y custodia compartida: Estudio socio-jurídico sobre 3 casos de la CAPV", Verónica Gallo ikasleak Maggy Barrère Unzueta-aren zuzendaritzapean eginikoa; "Dimensión jurídica de la diversidad de género", Iraide Leguina ikasleak Leire Imaz Zubiaur irakaslearen zuzendaritzapean eginikoa; "Kanporatzea eta etsaiaren zigor Zuzenbidea: hausnarketa kritikoa Ikuspegi aktuarial-gerentzial batetik", Helene Colomo ikasleak Ana Pérez Machío irakaslearen zuzendaritzapean eginikoa; "El llamado 'discurso del odio' en internet y su regulación jurídica: un análisis del 'caso de la viñetista T.C'", Marina Lara ikasleak Maggy Barrère Unzueta-aren zuzendaritzapean eginikoa; "El acoso sexual en el ámbito laboral", Begoña Hernández ikasleak Fernando Tapia Alberdi eta Iker Barbero González irakaslearen zuzendaritzapean eginikoa. Kriminologiako graduari dagokionez, "Emakumeen

aurkako indarkeriari aurre egiteko politika publikoen ebaluagarritasuna" izeneko GRALa, Oihane Vergara ikasleak Ana Pérez Machío eta Juan Aldaz Arregi irakasleen zuzendaritzapean eginikoa.

4. **Ekainaren 27an**, JSKJko zuzendarien bilera 2017/2018 ikasturteko ikasleekin, balorazioak trukatzeko eta hobekuntza ildoak adosteko hurrengo ikasturteei begira.

5. Klinikako Zuzendaritzak 2018/2019 ikasturteko ikasleak hautatzea. Hautaketa egin aurretik, **irailaren 17an**, informazio bilera bat egin zen JSKJren jardueretan parte hartzeko interesa zuten ikasleentzat. Gero, hautapen prozesuan, 25 eskaera baloratu ziren, aintzat hartuta jasotako dokumentazioa. **Urriaren 3an**, JSKJko zuzendariak elkarrizketa pertsonalak egin zizkieten ikasleei, eta, hortik abiatuta, 2018/2019 ikasturterako onartutako ikasleen zerrenda argitaratu zen web orrian. 25 eskaeretatik 11 aukeratu ziren.

6. 2018/2019 ikasturteko GRAL eta MAL tutoreak hautatzea, baita ikasleen praktikenak ere. Horretarako, JSKJko zuzendaritzak beharrezko gestioak egin zituen Gurutze Gorria, SOS Arrazakeria eta UPV/EHUko Berdintasun Zuzendaritzarekin, eta Carmen Torres abokatu eta JSKJren kolaboratzailearekin. Hala, Mintegi Iraunkorraren **azaroaren 14ko** saioan, GRALen edo MALen aztergai izan zitezkeen diskriminazio kasuak eta problematikak aurkeztu ziren.

II. **MINTEGI IRAUNKORRAREN JARDUERAK**

Zuzendaritza Kontseiluak onartutako diseinuari jarraituz, bederatzi prestakuntza saio egin ziren Mintegi Iraunkorrean (**urtarrilak 25, otsailak 5 eta 26, martxoak 19, apirilak 16, maiatzak 7, urriak 17, azaroak 14 eta abenduak 13 eta 14**), eta saio horietan parte hartu zuten ikasleek, Zuzendaritza Kontseiluko kideek eta JSKJrekin lankidetzan diharduten irakasleek. Azken saioan, ikasle talde batek, zuzendaritzak eta Klinikako Zuzendaritza Kontseiluak parte hartu zuten Gasteizen egin zen Tratu Berdintasunari eta Diskriminazio Ezari buruzko I. Euskal Kongresuan. Txosten ekonomikoan zehaztu denez, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzak finantzatu zituen saio horiek, Justizia Soziala-Lab Hezkuntza Berrikuntzako Proiektuaren kontura. Hizlariak eta aztergaiei buruzko informazio guztia JSKJren webgunean argitaratuta dago. Gainera, dagozkion baimenak kudeatu eta izapidetu ziren, saioak grabatu zitezkeen. Bideoak UPV/EHUren webgunean eskura daitezke.

III. **JUSTIZIA SOZIALA-LAB HEZKUNTZA BERRIKUNTZA PROIEKTUARI LOTUTAKO JARDUERAK**

Justizia Soziala-Lab proiektua, Joseba Ezeiza irakasle eta JSKJko idazkariak zuzentzen duena, bi etapa izan ditu.

Urtarrila/ekaina epean, jarduera hauek egin ziren:

- "Pentsamendu kritikoa: argudiaketa eta komunikazioa" proiektua garatzea, Donostiako Zuzenbideko graduko 2. eta 3. mailako ikasleekin, Ana Leturia irakaslearen zuzendaritzapean.
- "Kriminologia tailerra: askotariko ahotsak gizartea berreraikitze" proiektua garatzea, Kriminologiako graduko 1., 2. eta 3. mailako ikasleekin, Juan Aldaz irakaslearen zuzendaritzapean.
- "Sexu-genero sistema: berdintasuna eta aniztasuna" proiektua diseinatzea eta programatzea, Leire Imaz irakaslearen eta Oscar Arroyuelo AZPko langilearen zuzendaritzapean.
- UPV/EHUko Ikasleen I. Biltzarrean parte hartu zuten ikasleei laguntzea beren aurkezpenak prestatzen.
- JSKJko ikasleek Tratu Berdintasunari eta Diskriminazio Ezari buruzko I. Euskal Kongresuan parte hartzeko laguntza poltsa kudeatzea.

Iraila/abendua epean, jarduera hauek egin ziren:

- "Sexu-genero sistema: berdintasuna eta aniztasuna" proiektua hastea, Leioako Zuzenbideko graduko ikasleekin, Klinikako Zuzendaritza Kontseiluko kideen, Leire Imaz irakaslearen eta Oscar Arroyuelo AZPko langilearen zuzendaritzapean.
4 Saio ospatzen dira, proiektuaren formakuntza plangintzaren barnean: Aurkezpena, galdetegia eta antzerkia; feminismoa feministak ez direnentzako; gizonak eta feminismoa; Diskriminazio eza eta berdintasunari buruzko praktika juridikoen eta araudiaren analisi iusfeminista. 4. saioan hizlari gisa, Leire Imaz eta Maggy Barrèrek parte hartu zuten hurrenez hurren.
- 2017/18 ikasturteko tailerrak egokitzea ("Pentsamendu kritikoa: argudiaketa eta komunikazioa" eta "Kriminologia tailerra: askotariko ahotsak gizartea berreraikitze"), prestakuntza osagarri modalitatean eskaintzeko JSKJan matrikulatutako ikasleei.
- "Hizkuntza Inklusiboa, Hizkuntza Argia eta Hizkuntza Bakuna: hiru tresna berritzaile Justizia Sozial handiago bat lortzeko" tailerra diseinatzea, prestakuntza osagarri gisa eskaintzeko JSKJan matrikulatutako ikasleei.

- GOGOETAGUNE proposamena lantzea, ibilbide luzeago bat emateko Mintegi Iraunkorraren jardueri.
- EUROSOLT19 biltzarrean parte hartzeko proposamen bat lantzea.
- Fakultateko Batzarrari proposatzea hautazko kredituak aitortzeko 2017/18 ikasturteko tailerretan parte hartu zuten JSKJko ikasleei, baita Mintegi Iraunkorreko ikasleei ere.

IV. **ETORKIZUNA ERAIKIZ IKERKETA PROIEKTUARI LOTUTAKO JARDUERAK**

2018ko otsailean, Lankidetzaren Hitzarmen estrategiko bat izenpetu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA, aurrerantzean) eta UPV/EHUk, Etorkizuna Eraikiz programaren baitan. Programa horren babesean, JSKJak aurkeztutako genero indarkeriari eta zaintza partekatuari buruzko ikerketa proiektua aukeratu zuten, GFArekiko lankidetzaren garatzeko aukera ematen duena. Zehazki, ikerketa proiektu horrek aukera ematen du sakontzeko Klinika lantzen ari zen ildoetako batean (hau da, zaintza partekatua genero indarkeria kasuetan), genero indarkeriaren aurkako GFAREN Aurre! Planari lotuta, zeinaren indarraldia 2016-2019 den. Kontua da elkarlanean aritzea eta indarrak batzea GFArekin, ikerketaren esparruan, proposamenak planteatzeko nagusiki arreta sozio-juridiko, psikologiko eta psiko-sozialaren arloan.

Proiektua bururaino eramateko, diziplina anitzeko talde bat sortu zen JSKJren barnean, zuzendariak, Zuzendaritza Kontseiluko bi kidek, zuzenbideko ikasle batek eta kriminologiako ikasle batek osatua. Proiektua hiru mailatan garatu da (diziplinartekotasuna, ikerketa enpirikoa eta lan instituzionalaren gaineko proiektzioa), eta hiru jarraipen txosten egin dira (apirilean, irailean eta abenduan).

Proiektua garatzeko, aldi behingo bilerak egin dituzte ikerketa taldeko kideek, bi bilera egin dira GFAko Berdintasun zuzendariarekin eta Ataleko buruarekin (**apirilaren 13an** eta **maiatzaren 2an**), eta hartu-emanak izan dira ere Donostiako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako langileekin.

Gainera, aintzat harturik proiektuaren gaia, **maiatzaren 7an**, Lanbide arteko Mintegi bat egin zen JSKJren egoitzan, epaileen, abokatuen, Arartekoaren, Emakunderen eta GFAko kideen partaidetzarekin.

Proiektuaren garapen osoa, "Botere Publikoen erantzuna genero indarkeriari zaintza partekatua legearen ondoren: kasuen analisia eta proposamenak GFAREN Aurre! planaren baitan" izenburupean, 70 orrialdeko testu batean gauzatu da (eranskinak alde batera utzita), bi hizkuntzetan (gaztelania/euskara).

5. JSKJren GIZARTE HEDAKUNTZARI ETA 'ERABEREAN' SAREAREKIKO LANKIDETZA INDARTZEARI LOTUTAKO JARDUERAK

Martxoaren 1ean, JSKJren egoitzan, "GIBdun pertsonen eskubideak tratamendu denboran, prebentzio gisa" izeneko jardunaldia egin zen, CESIDA, GEHITU eta Alcalako Unibertsitateko Lege Klinikarekin elkarlanean, eta Zuzendaritza Kontseiluko eta fakultateko irakasleak aritu ziren hizlari gisa.

Egun berean (**martxoaren 1ean**), JSKJko zuzendariak Bilbon bildu ziren Urko Jiménez eta Inés Soria epaileekin, Klinikarekiko lankidetzaz posiblez hitz egiteko. Ildo berean, hartu-emanak izan ziren epaileekin, abokatuekin, Emakunderekin eta Arartekoarekin, aurretik aipatu den Lanbide arteko Mintegia prestatu eta antolatzeko (**maiatzaren 7an** egin zena aipatu diren erakunde eta elkarte guztien partaidetzarekin).

Apirilaren 18an, Juana Goizueta JSKJko zuzendari laguntzaileak bilera egin zuen erakundearen egoitzan Diógenes Sábanarekin, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eskatuta, Klinikak Tratu Berdintasunari eta Diskriminazio Ezari buruzko I. Euskal Kongresuaren (Gasteizen, abenduaren 13an eta 14an) antolakuntzan izango zuen parte hartzeaz hitz egiteko. Kongresuaren Batzorde Teknikoan Klinikaren ordezkari gisa arituko zen pertsona bat izendatzea eskatu zenez, zuzendari laguntzaileak hartu zuen bere gain eginkizun hori, eta kongresua antolatzeko hainbat bileratan izan zen.

Apirilaren **20an** LGTBI Euskal Elkartearen lehen bilera ospatzen da, JSKJren Zuzendaritza Kontseiluko hainbat kide eta Klinikako ikasle eta kolaboratzaile batzuk parte hartzen dutelarik.

Apirilaren 21ean eta **ekainaren 9an** berriz biltzen dira aipatutako Elakarteak.

Maiatzaren 8an, bilera bat egin zuten Donostian JSKJko Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiken sailburuordeak eta Familia Politikako eta Aniztasuneko zuzendariak, JSKJak eta Eraberean Sareak izenpetu beharreko Lankidetzaz Hitzarmena zehazteko.

Maiatzaren 14an, Lankidetzaz Hitzarmena izenpetu zuten EAeko Administrazio Orokorrek eta JSKJak. Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak eta JSKJko zuzendariak sinatu zuten hitzarmena, Eusko Jaurlaritzaren Donostiako egoitzan.

Maiatzaren 15ean, JSKJren egoitzan, "Gorroto delituen aurrean begiradak batuz" Nazioarteko Jardunaldia egin zen. Klinikako Zuzendaritzak eta Zuzendaritza Kontseiluko kideek parte hartu zuten.

Maiatzaren 29an, JSKJko zuzendaria “Gorroto delituen eta diskriminazioaren biktimak: beharrak, laguntza eta erantzunak” izeneko mahai inguruan izan zen, Carlos Santamaria Zentroan.

Uztailaren 4an, JSKJko zuzendariak bilera egin zuen Eraberean egitasmoko kide batekin, 2018/19 ikasturterako lankidetzak jarduerak zehazteko, maiatzaren 14an Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarekin izenpetu zen Lankidetzak Hitzarmena edukiz betetzeari begira.

Urriaren 19an, zuzendariak, Helene Colomo JSKJko ikaslea eta Diógenes Sabana Eraberean-eko kidea Espainiako unibertsitateetako Klinika Juridikoen 7. topaketan izan ziren, Salamancan egin zena “Responsabilidad social universitaria y Clínicas Jurídicas: otra forma de hacer Universidad” izenburupean. Zuzendariak, ikasleak eta Diógenes Sabanak JSKJa aurkeztu zuten topaketako mahai inguruetako batean, Madrilgo Carlos III.a Unibertsitateko María Gema Quinterok moderatuta. Gainera, urteko ekitaldi horretan bertan, Salamancako Deklarazioa onartu zen, Klinika Juridikoei eta Unibertsitateen Gizarte Erantzukizunari buruzkoa.

Azaroaren 8an, Maggy Barrèrek, JSKJko zuzendari gisa, “El Repte de la Innovació Docent a la Universitat” izeneko jardunaldian parte hartu zuen, Pompeu Fabra Unibertsitatean. Andres Gascónekkin batera (Giza Eskubideen Institutuko ikertzailea eta Valentziako Unibertsitateko Justizia Sozialaren Klinika Juridikoko zuzendarikidea), JSKJko zuzendariak “La importancia de las Clínicas jurídicas en el fortalecimiento de la Justicia Social” izeneko mahai inguruan parte hartu zuen.

Azaroaren 9an, JSKJko zuzendaria, bere karguagatik gonbidatua, Memoria Eraikiz egitasmoren barnean, “Loreak asfaltoan. Indarkeria matxisten arrazoiak eta eraginak indarkeria matxistetatik bizirik irten diren emakume biktimen bizitzan” izeneko ikuskizunaren emanaldian izan zen (erakundeentzat eta gaiari lotutako entitateentzat antolatutako emanaldia), Donostiako Easo Plazan.

Abenduaren 10ean, goizez, JSKJko zuzendariak “Diskriminazioa, zaintzak eta immigrazioa” jardunaldian parte hartu zuen, Tratu Berdintasunari eta Diskriminazio Ezari buruzko I. Euskal Kongresuaren programaren barnean, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean.

Abenduaren 10ean, arratsaldean, Javier Sadabak “Berdintasunaren betebeharrak etikoak” izeneko hitzaldia eman zuen JSKJren egoitzan, kongresu berari lotuta.

Abenduaren 11n, JSKJko zuzendariak beste topaketa batean parte hartu zuen, Gipuzkoako Foru Aldundian, Tratu Berdintasunari eta Diskriminazio Ezari buruzko I. Euskal Kongresuari lotuta

ere, hainbat elkartetako pertonekin batera (ezgaitasunak dituzten pertsonen diskriminazioaren aurkako elkarteak, ijitoen elkarteak, LGTBI...).

Abenduaren 13an eta 14an, Tratu Berdintasunari eta Diskriminazio Ezari buruzko I. Euskal Kongresua egin zen, Gasteizen, "Askeak eta berdinak duintasunean eta eskubideetan" izenburupean. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bultzatutako kongresu honen antolakuntzan, Eraberean sarea eta Biltzen aritu ziren, eta JSKJko zuzendari laguntzaileak Antolakuntza Batzordean parte hartu zuen. Gainera, kongresuan izan ziren JSKJko zuzendaria, Zuzendaritza Kontseiluko kideak eta JSKJko zenbait ikasle, eta Ana Pérez Machío JSKJko Zuzendaritza Kontseiluko kideak moderatu zuen kexei eta diskriminazio kasuen eta gorroto delituen salaketei buruzko mahai ingurua.

TXOSTEN EKONOMIKOA 2018

MINTEGI iraunkorra	GASTUAK
2018/01/25 - Diskriminazioa, arrazakeria eta immigrazioa Hizlaria: José Ángel Brandariz (Universidade da Coruña)	552,78
2018/01/25 – Bazkaria LUKAS	112,80
2018/02/05 – Diskriminazio kasuen aurkezpena eta erantzuna elkartearen beharrei. Hizlariak: Isabel Abella (abokatua) M ^a José Etxegoien (Emakunde Defentsa erakundea) Eraberean Sarea	200,00
2018/02/05 – Bazkaria LUKAS	37,40
2018/02/26 - Pertsona edo kolektibo diskriminatuak elkarrizketatzeko komunikazio gaitasunak eta trebetasunak. Hizlaria: Carmen Maganto	350,00
2018/03/01 – JSKJko zuzendarien bilera (Bilbo)	79,80
Veronica Galloren dieta GASTUAK (prestakuntza) 1. hiru hilekoa	32,64
2018/04/13 – Leire Imazen dietak (saioa)	82,70
2018/04/16 - Auzi estrategikoa. Kontzeptu eta esperientzia errealak. Hizlaria: Estefanny Molina - Women's Link Worldwide	554,33
2018/04/16 – Bazkaria LUKAS	54,90
2018/04/16 – Iraide Leguinaren dietak (prestakuntza)	76,18
2018/05/07 – Bazkaria LUKAS	57,70
2018/05/07 – Leire Imazen dietak (saioa)	83,62
2018/05/07 – Lurdes Lekuonaren dietak	28,25
2018/05/07 - Iraide Leguinaren dietak (prestakuntza)	81,89
2018/05/24 – JSKJrentzako grabagailua	65,50
2018/05/23 - Tratu Berdintasunari eta Diskriminazio Ezari buruzko I. Euskal Kongresua antolatzeke bilera.	87,46
2018/09/12 – Leire Imazen dietak (saioa)	82,70
2018/09/29 - Gesporlan fak. 181339 (JSKJ inprimagailu tinta)	57,78
2018/10/19 – Juana Goizueta hotela VII. JSKJ topaketa	87,97
2018/10/19 – Helene Colomo hotela VII. JSKJ topaketa	87,97
2018/11/14 - Eraberean Sareko elkarteek, Berdintasunerako Defentsa erakundeak (Emakunde) eta abokatu bulegoek kasu errealak aurkeztea. Hizlariak: Vicente Azpilicueta / Carmen Torres	400,00
2018/12/12 - Gesporlan fak. 181826 (JSKJ inprimagailu tinta)	115,56
2018/12/13-14 – Berdintasunari buruzko kongresua (Ana Pérez)	205,06
2018/12/13-14 – Berdintasunari buruzko kongresua (Oscar Arroyuelo)	31,04

2018/12/13-14 – Berdintasunari buruzko kongresua (Maggy Barrère)	44,32
2018/12/13-14 – Berdintasunari buruzko kongresua (Marina Lara)	71,86
2018/12/13-14 – Berdintasunari buruzko kongresua (Begoña Hernández)	41,90
2018/12/13-14 – Berdintasunari buruzko kongresua (Alazne Irigoyen)	22,15
2018/12/20- Klinika juridikoko kartela egitea eta jartzea	2020,7
	5.784,81€

JUSTIZIA SOZIALA-LAB	GASTUA
2018/01/16 – Zorroaga Fotokopiak 33948 albarana	13,43 €
2018/07/01 – LGTBfobiaren aurkako Behatokiaren Nazioarteko I. Topaketa	345,96
2018/07/01 – Iraide Leguinaren dietak, LGTBfobiaren aurkako topaketa	197,45
2018/07/01 – Veronica Galloren dietak, LGTBfobiaren aurkako topaketa	169,4
2018/09/20 – AntzerkiZ prestakuntza jarduera (Leioa)	668,83
2018/09/20 – Pikara Magazine (María Castejón urriak 2 eta 5, saioa Leioa)	792,49
2018/11/08 – Maskulinitate berriak (Jokin Azpiazu azaroak 5 eta 6, saioa Leioa)	726,56
	2.914,12 €

GASTUAK GUZTIRA

8.698,93€